

Euskararen alde, ziurtasun osoz

Pozez hartu zuten gizarte eragileek ziurtagiria.

Agerian utzi zituzten, hala ere, eguneroko jardunean dituzten nekeak.

Poz handia azaldu zuten atzo gizarte erakunde gehienetako ordezkariak ziurtagiria jaso ostean. «Guk, ia azterketa bat balitz bezala hartu dugu kontu hau guztia», zioen, esaterako, Gipuzkoako Elbarrituen Elkarteko lehendakari Maite Berasategik. «Ziurtagiria lortzeko gutxiengoetara iritsi egin nahi genuen, eta lortu dugu», azaldu zuen pozik. «Izan ere, gure artean zein kanpoko harremanetan ahal dela euskaraz jardun nahi dugu».

Ildo berean mintzo zen MCC Mondragon Corporacion Corporativako formazio arduradun Mikel Lezamiz. «Gu dagoeneko euskararen erabilera sustatzeko plangintza batean sartuta gaude; hi-

ru urte daramatzagu lanean». Orain, esaterako, irudi korporatiboan euskarari garrantzi handiagoa ematen hasi nahi dutela azaldu zuen.

Antzera hitz egin zuen BBK finantza erakundeko Kanpo Harremanetarako zuzendari Jon Manzisidorrek ere. «Orain bi urte plan estrategiko bat jarri genuen abian», azaldu zuen, euskararen erabilera sustatzea xede errotua dutela esanez. «Hala, gaurkoa oso ekintza garrantzitsua izan da guretzat».

Nekeak agerian, baina pozik

Zenbait gizarte erakundek, ordea, argi utzi nahi izan zuten atzerapausoak egotea zai-

la dela beraienean, oraindik arrunt aurrerapauso gutxi eman direla eta. «Gure mundua, esaterako, oso erdalduna da», zioen atzoko ekitaldiaren ostean Gipuzkoako Auto Eskolen Elkarteko lehendakari Josetxo Mendizabalek. Ziurtagiria esku artean, egoera hori aldatzea nahi dutela esan zuen. «Izan ere, ikasleen artean geroz eta euskaldun gehiago daude». Ikasle horiek euskaraz gidatzen ikasteko nekeak baino ez dituztela esan zuen, ordea. «Administrazioa, gainera, uzkur dago, ez du egoera hori aldatu nahi», salatu zuen. Beren mundua erdalduna izaki, ziurtagiria lortzea ez dela erraza izan zioen, baina oso gustura jaso dutela ordea.



Beren elkarteak arrunt txikia izaki, ziurtagiria lortzea beraientzat ere ardura handia izan dela zioen ALCER Giltzurdineko Gaixoen Gipuzkoako Elkarteko gizarte laguntzaile Maider Amenabarrek. «Bi langile baino ez gara elkarteak, eta %50 baino ez, alegia ni, euskalduna», azaldu zuen. «Hala ere, gure txi-

kian ahal dugun guztia euskaraz egiten dugu».

Neke eta ezintasunak ahotan hartuta, lan mundua ere oraindik arrunt erdalduna dela zioen atzo Miramonen LAB sindikatuko idazkari nagusi Rafa Diezek. «Hala, ziurtagiri hau jasotzeak konpromiso gehiago hartzea esan nahi du guretzat», esan zuen.

Ziurtagiria jaso duten gizarte eragileak

- 425 erakunde dira guztira, denak gizartearen zati, eta euskararen aldeko konpromisoan tinko dihardutela azaldu dute. Hona, ziurtagiria jaso duten guztiak;

Unibertsitatea

- Abarrots Euskara Taldea.
- Begoñako Andra Mari Irakasletzako Unibertsitate Eskola.
- Deustuko Unibertsitateko Ikasleen Euskara Taldea
- ELA.
- Elkarlanean-Lurgorri I.E.
- Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskola-Bilbo.
- Eraldatu.
- Eseune- Ikasketa Unibertsitarien eta Negozioen Europako Eskola.
- Gestio Eskola.
- Ikasle Abertzaleak.
- LAB.
- Mondragon Unibertsitatea.
- NUPEko Euskara Taldeak
- STEE-EILAS Unibertsitatea.
- UEU, Udako Euskal Unibertsitatea.
- UNED, Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionala.

Formazioa

- ACPEME, • Euskadiko Musika Eskola pribatuen elkarteak.
- AICE, Irakaskuntza Zentroen Elkarte Autonomoa.
- Bai & By.
- CEINPRO, Heziketa Zentru Integrala.
- Donostia Hiria Nazioarteko Piano Lehiaketa.
- Gayarre Conservatorio-Musika Eskola.
- Ibargain Musika Eskola.
- Laudioko Don't Institutua.
- Iruñeko Hizkuntza Eskola Ofiziala.
- Juan de Anbixeta Musika Eskola.
- Lacunza - International House.
- Noroabe Musika Eskola.
- Soho English Hizkuntza Eskola.
- Sylvan Centers Euskadi.
- The Smith School.
- Wall Street Institute.

Hezkuntza ez unibertsitariak

- Andoingo Zine eta Bideo Eskola S.L.
- Arizmendi Ikastola Kooperatiba Elkarteak.
- BAIKARA, Gipuzkoako Euskal Eskola Publikoko Ikasleen Gurasoen Federazioa.
- BIGE, Bizkaiko Gurasoen Elkarteak.
- Denon Eskola.
- Diocesanas.
- EIEF-Euskadiko Irakaskuntzarako Ertlijosoen Federakuntza.
- EILAS - Euskadiko Irakaskuntzaren Langileen Sindikatua.
- ELA.
- Eskola Txikiak Eskola Elkarrekin Koordinakundea.
- Goierrri Lanbide Eskola.
- Hik Hasi.
- Ikastola Elkarteak.
- Jesus Obrero Institutu Politeknikoak.
- Jose Langile Deuna Salesiar Ikastetxea.
- LAB.
- La-Salle Berrozpe ikastetxea.
- LEA-ARTIBAI Ikastetxea.
- Sarean, Euskal Eskola Publikoak Sarean.
- Sortzen-Ikasbatuaz.
- UNI Eibar-Ermua BHI.

Irratia

- Bizkaia Irratia.
- Durango Irratia.
- Euskalerria Irratia.
- Hala Bedi Irratia.
- Herri Irratia Donostia.
- Itsuki Irratia.
- Kosta Irratia.
- Nerbioi Irratia.
- Onda Vasca-Busturialdeko Irrati Telebista.
- Radio Gorbea.
- Radio Rioja Alavesa.
- Segura Irratia.

Prentsa

- Argia.
- Deia.
- Diario de Noticias.
- Euskaldunon Egunkaria.
- Gara.
- Información e Imagen, S.A. - Vasco Press.
- Jakin Aldizkaria.
- Kili-Kili.
- Pirineos.
- Sua Edizioak.
- Topagunea.
- UTC-KLB, Komunikabideetako Langileen Batasuna.

Telebista

- ARKO Arrasate Komunikabideak.
- Canal Bizkaia Telebista.
- Canal Gasteiz.
- Euskarazko Herri Telebisten Federazioa.
- Ikuskin.
- Kanal On, Andoingo Telebista.
- KTB, Kate Berria Eibarko Telebista.
- Orio Produkzioak.
- PTB Plentzia Telebista.
- Tele Vitoria.
- Telebilbao.
- Telesko Udal Telebista.
- Txingudi Telebista.
- Xaloe Telebista
- ZTB- Zarauzko Telebista.

Publizitatea

- Arabako Publizitate Agentzien Elkarteak.
- Bell Comunicación Integral, S. Coop.
- Bizkaiko Publizitate Agentzien Elkarteak.
- Trupp Publicidad, S.A.
- Ttanta Komunikazioa.

Mundu asoziatiboa

- Antxeta Atseendaldi Elkarteak.
- BAT-Bizi Alai Taldea.
- Bilboko konpartsak.

- BKE -Bizkaiko Kontsumitzaileen Elkarte Probintziala.
- Blusa Neska Mutil Elkarteak.
- EDE Fundazioa.
- EKA - Euskal Herriko Kontsumitzaileen Antolakundea.
- Emaize Formazio Guneak.
- Euskadiko Gazteriaren Kontseilua.
- Euskadiko Kontsumitzaile Federazioa.
- Euskal Naturista Elkarteak.
- Euskalerriko Eskautak-Araba
- Euskalerriko Eskautak-Bizkaia.
- Euskalerriko Eskautak-Gipuzkoa.
- Barakaldoko Elkarte Erregionalen Elkarteak.
- Gipuzkoako Kontsumitzaileen Batasuna.
- Herria 2000 Eliza.
- Hezkide Eskola (Hezkide Eskola, Aisialdia, Susperketa Soziokulturala eta Borondategileen Elizbarrutiko Eskola).
- Iruñeko Peñen Federazioa.
- Itaka.
- Juventudes Marianas Vicencianas.
- La Bota Elkarteak.
- Nafarroako Gazteriaren Kontseilua.
- Oinarizko Kristau Elkarte Herriarrak.
- Suspergintza Elkarteak.
- Tafallako Jailetako Peñak.
- UCE - Euskal Herriko Kontsumitzaile Batasuna.
- Urtxintza Eskola-Bizkaia, Aisialdiko Hezitzaileen Eskola eta Gizarte Dinamizaziorako Eskola-Bizkaia.
- Urtxintza Eskola-Gipuzkoa, Aisialdiko Hezitzaileen Eskola eta Gizarte Dinamizaziorako Eskola-Gipuzkoa.

Ekitaldi antolatzaileak

- ABAO (Bilboko Operaldia), Opera Lagunen Bilboko Elkarteak.
- Artsaia.
- Asegarce.
- ASPE, Jugadores de Pelota S.L.
- Bidasoa Ikerketa Zentroa.
- Donostiako Jazzaldia.
- Euskadiko Txapelketa Dantza Askatuan.
- Euskal Bizikleta Kirol Elkarteak.
- Lekeitioko Kale-Antzerki Nazioarteko Jaialdia.
- Tolosako Ekinbide Etxea.

Gizarte mugimenduak

- Askapena, Herriekiko Euskal Elkartasuna.
- Nafarroako GKE Koordinadora.
- EGIZAN.
- EHGAM, Euskal Herriko Gay Askapen Mugimendua.
- Ekologistak Martxan Iruñerria.
- Elkarri.
- Emakumei Buruzko Estudio Taldea.
- Erreka Plataforma Ekologista - Ekologistak Martxan.
- Germika Gogoratu.
- Iparla Elkarteak.
- Joxemi Zumalabe Fundazioa.
- Komite Internazionalistak.
- Plataforma Cívica Bakea Orain.
- Senideak, Euskal Preso eta Errefuxiatu Politikoen Senitatekoak.
- Sumendi, Osasunaren Autojestionako Elkarteak.

Kirol Federazioak

- Arrantza eta Kasting Euskal Federakuntza.
- Arraunketako Euskal Federakundea.
- Euskadiko Atletismo Federakuntza.
- Euskadiko Automobilismo Federazioa.
- Euskadiko Borroka eta Sanbo Federazioa.
- Euskadiko Futbol Federakuntza.
- Euskadiko Gimnasia Federazioa.
- Euskadiko Halterofilia Federazioa.
- Euskadiko Herri Kirol Federakundea.
- Euskadiko Judo Federakuntza eta Kirol Elkarteak.
- Euskadiko Rugby Federakuntza.
- Euskadiko Triathloi Federazioa.
- Euskadiko Txirrindularitza Federazioa.
- Euskal Herriko Tiro Olinpiar Federakuntza.
- Euskal Hockey Elkarteak.
- Euskal Karate Federazioa.
- Euskal Mendizale Federakundea.
- Euskal Tennis Federazioa.
- Eusko Aire Kirol Federazioa.
- Nafarroako Herri Kirol Federazioa.
- Nafarroako Igeriketa Federazioa.
- Iranzu Atletiko Taldea.
- Saskibaloia Euskal Federazioa.

- Sustraiak (Euskal Federazioen Elkarteak).
- Xake Euskal Federakuntza.

Kirol taldeak

- Añorgako Kultur eta Kirol Elkarteak.
- Askatuak Saskibaloia Taldea.
- Athletic Club Bilbao.
- Bera Bera R.T.
- Bidasoa Kirol Elkarteak.
- Errealearen lagunak.
- Getxoko Rugby Taldea.
- Kemen, Euskal Elbarri Fisikoen Kirol Elkarteak.
- Real Sociedad de Fútbol.
- Saski Baskonia S.A.D.
- Sociedad Deportiva Eibar S.A.D.

Kultura

- Antzerki Talde Amateurren Elkarteak.
- Araba Films (Circuito Mikeldi).
- Aranzadi Zientzi Elkarteak.
- Arrano Beltza Euskal Tokia.
- ASIFA - Euskadi.
- Aurten Bai Fundazioa.
- Bagare Euskal Tokia.
- Baztandarren Biltzarra Elkarteak.
- Bertsotzaile Elkarteak.
- Donostiako Orfeoia.
- Donostiako Ozeanografi Elkarteak Aquarium.
- E.I.E., Euskal Idazleen Elkarteak.
- Euskal Herriko Abesbatzen Elkarteak.
- Euskal Herriko Artisanatza Tradizionalaren Bizkortzerako Elkarteak -ARBASO.
- Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak.
- Euskal Herriko Txistularien Elkarteak.
- Eusko Ikaskuntza.
- Gerediaga Elkarteak.
- IBAIA, Ikus-entzunezkoen Euskal Ekoloize Burujabeen Elkarteak.
- Ikerfolk.
- IPES Elkarteak.
- Instituto Gerónimo de Uztariz de Historia Económica y Social.
- Kalegana.
- Labayru Ikastegia.
- Ortazar Euskal Folklore Taldea.
- Sabino Arana Kultur Elkargoa.
- SAMA - Ikusentzunezko Hedabideen Arabako Elkarteak.